

INFORMAZIO ORRIA

- *Eusko Jaurlaritza* - *“Ingurumen eta lurralde politika saila”*

Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak.

HELBURUA: Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egitea eta oinarri arautzaileak ezartzea.

ONURADUNAK:

- Udalak
- Mankomunitateak
- Tokiko organismoak
- Tokiko organismo autonomoak
- Tokiko garapen-agentziak
- Tokiko merkataritza-sozietateak

DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK:

1. Lurzoru kutsatuak. Tokiko organismo publikoen titulartasuneko lurzorua kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
2. Klima-aldaketa eta atmosfera. EAEn inguru-airearen kalitatea hobetzea sustatzen duten ekintzak, zarataren inguruko ekintzak, eta arintzera (berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murriztea) eta egokitzera (klima-aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak) bideratutakoak.
3. Kapital naturala eta biodibertsitatea. EAEko dibertsitate biologikoari eusteko eta berau leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
4. Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.

LAGUNTZEN ZENBATEKOAK:

Ekintza espezifikotarako aurrekontu-zuzkidura, guztira, milioi bat zortziehun eta hamar mila (1.810.000) eurokoa izango da.

- Lurzoru kutsatuen lerroan: Gehienez, seiehun mila (600.000) euro.
- Klima-aldaketaren eta atmosferaren lerroan: Gehienez, seiehun mila (600.000) euro.
- Kapital naturalaren eta biodibertsitatearen lerroan: Gehienez, lauhun eta berrogeita hamar mila (450.000) euro.
- Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan: Gehienez, ehun eta hirurogei mila (160.000) euro.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- a) Behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpena (2011rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 5/2010 Legeak sartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua 6. paragrafoan aipatuta), zeinak 6.3 artikuluan ezarritako baldintzak betetzea egiaztatu ez ezik.
- b) Oinarrizko eta harremanetarako datuen formularioa.
- c) Laguntza eskatzen den jardun-lerroari dagokion «Aurrekontua» inprimakia, behar bezala beteta. Aurrekontua kontu-sailen arabera banakatu beharko da, kontzeptuak argi bereizita.
- d) Laguntza eskatzen den jardun-lerroari dagokion «Proiektuaren memoria» inprimakia. Beharrezko eremu guztiak bete beharko dira, diru-laguntza eskatzen den proiektu motaren arabera.
- e) Lurzoru kutsatuen lerroaren kasuan, erakunde eskatzaileak kokalekua titulartasun publikokoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Halaber, titulartasun publiko hori noiz eskuratu zen argitu beharko du, bai eta kokalekuaren zer ehuneko den udalaren titulartasuna ere.
- f) Udal-erakinen etorkizuneko birgaikuntzan gauzatu beharreko ekintzen azterlan xehatuei buruzko klima-aldaketa eta atmosferaren lerroko ekintzei dagokienez, diru-laguntza eskatzen duten jarduna garatuko den eraikinaren behin betiko ziurtagiri energetikoaren kopia ere erantsi beharko dute, bai eta udalaren idazkariak egindako ziurtagiri bat ere, eraikin horretan 2015eko ekitaldian guztira zenbat energia eta erregai kontsumitu den jasotzen duena.
- g) Martxan jarritako ekintzek aurrezkiak sortzen badute, 7.3 artikuluekin bat etorriz, jakinarazitako aurrezkiak zehazteko egindako hipotesien eta kalkuluen frogagiria atxiki beharko da.
- h) Kapital naturalaren eta biodibertsitatearen ekintzen kasuan, «Beharrezko baimenen laburpena» inprimakia, eta, baimenak jaso gero, erakunde eskudunek emandako baimenen kopiak (Jabari Publiko Hidraulikoan, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoan, Natura Parkeetan eta abar jardunez gero).

AURKEZPEN EPEA:

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 22an amaituko da, mugaeguna barne.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, euskadi.net egoitza elektronikoa (https://euskadi.eus/ayuda_subvencion/-/2016/herrijasangarriak/eu/).